

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 Ikasturtea

**AHOZKO NAHIZ IDATZIZKO TREBETASUNAK LEHEN
HEZKUNTZAN: MINTZAGUNE WEBGUNEA.**

Egilea: Itziar Anakabe Zarraga.

Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta.

Leioan, 2021eko maiatzaren 12a.

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Hizkuntza trebetasunak Lehen Hezkuntzan.	4
1.1 Definizioa, garrantzia eta ezaugarriak.....	4
1.2 Programak, planak eta lehentasunezko ekimenak.....	6
1.3 Hizkuntza trebetasunak euskaraz lantzeko baliabideak.	9
2. Garapen Iraunkorrerako Helburua: Elkarbizitza eta hezkidetza.	10
2.1 Definizioa eta garrantzia.....	11
2.2 II. Hezkidetza plana (2019, II. Hezkidetza Plana)	12
2.3 Protokoloak.	13
2.4 Plangintzak eta gidak.	16
2.5 Baliabideak.....	17
3. Webgunea: Mintzagunea.	18
3.1 Mintzagunea eta curriculum-a.....	18
3.2 Ezaugarriak.....	20
3.3 Prozedura.....	21
3.4 Lantzeko irizpideak.	22
4. Ondorioak.	22
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	24

AHOZKO NAHIZ IDATZIZKO TREBETASUNAK LEHEN HEZKUNTZAN**Itziar Anakabe Zarraga**

UPV/EHU

Gaur egun arte, idatzizko gaitasunari garrantzia handia emateko ohitura egon da, ahozkotasuna alde batera utziz. Egun, ahozko hizkuntza idatzizko gaitasuna bezain beste landu behar dela ulertzen da. Euskararen erabilera benetan bultzatu nahi bada, ezinbestekoa da irakasleek ikasleei zelan egin behar duten adieraztea eta baliabideak eskaintzea. Egoera horri aurre egiteko baliabide asko eskaintzen ez direnez, proposamen berritzaile bat aurkezten da: webgunea. Baliabide honi esker, hurrek ahozkotasuna euskaraz modu entretenigarrian eta haien interesen arabera lantzeko aukera izango dute; idatzizko gaitasuna alde batera utzi gabe, zeharka hezkidetzat landuz eta irakasleak prozesu honen gidari izanik.

Hitz gakoak: ahozkotasuna, hezkuntza, baliabideak, webgunea, hezkidetzat.

Hasta la fecha, ha existido la costumbre de otorgar gran importancia a la habilidad escrita, dejando de lado la oralidad. Actualmente, se entiende que el lenguaje oral debe practicarse tanto como la habilidad escrita. Si de verdad se quiere fomentar el uso del euskera, es fundamental que los profesores enseñen a los alumnos cómo hacerlo y aporten recursos para ello. Como no se ofrecen muchos recursos para hacer frente a esta situación, se presenta una propuesta innovadora: una página web. Este recurso permitirá a los niños practicar el euskera de forma amena y según sus intereses; sin descuidar la capacidad escrita, trabajando indirectamente la coeducación y haciendo que el profesor o profesora guíe este proceso.

Palabras clave: oralidad, educación, recursos, página web, coeducación.

To date, there has been the custom of giving great importance to written ability, leaving aside orality. It is now understood that oral language should be practiced as much as written skill. If the use of basque is really to be promoted, it is essential that teachers teach students how to do it and provide resources for it. As not many resources are offered to deal with this situation, an innovative proposal is presented: a web. This resource will allow children to practice basque in an entertaining way and according to their interests; without neglecting the written capacity, working indirectly on co-education and having the teacher to guide this process.

Key words: orality, education, resources, web, co-education.

Sarrera.

Gizakiok komunikatzeko beharra dugu, uneoro gaude etengabeko komunikazioan murgilduta, edozein gairi buruz dugun iritzia adierazteko, besteekin ideiak partekatzeko, eztabaidatzeko, harremanetan jartzeko eta beste hainbat gauza egiteko. Adibide guztien artean, argienetako bat eskola da. Komunikazioa presente dago atetik sartu eta agurtzen dugunetik, irtetzen garen arte.

Gizarteak eboluzionatzen duen heinean, eskolak berarekin batera eboluzionatzen du, beraz, euskaraz ahozketasuna sustatzeko erabil daitezkeen baliabideak ere aldatzen ari dira. Ahozketasuna askotan ahaztu izan da idatzizko adierazpenari garrantzia handiagoa eman ohi diogulako; ahozko hizkuntza irakasleari galderak egiteko edo ariketa batean erantzunak emateko soilik erabiliz. Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honen bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat proposamen berritzailea aurkeztu nahi dugu, irakasleak gidari izanik: ahozketasuna lantzeko webgune bat erabiltzea.

Gaur egun, teknologia berriei esker, hizkuntzen ahozko atala lantzeko askoz ere baliabide gehiago ditugu; hala nola, bideoak, jolasak, podcast-ak, sare sozialak... Hau kontuan har daiteke eskolan aplikatzeko eta euskaraz ahozketasuna modu desberdinetan lantzeko. Baliabideak erabiltzeaz gain, garrantzitsua da ikasleen zaletasunak edo haien testuinguru hurbila ezagutzea, haien intereseak izan daitezen; eta lagungarria izan daiteke gizartean pil-pilean dagoen gairen bat zeharka lantzea, esaterako, genero berdintasuna.

Gradu Amaierako Lan hau, alde batetik, parte teorikoak osatzen du; ahozketasunaren inguruko informazioa eta hau lantzeko eskaintzen diren programak eta baliabideak bilduz. Horrekin batera, elkarbizitza eta hezkidetzaren inguruko informazioa ere bildu da, II. Hezkidetzeta Plana, protokoloak, plangintzak eta baliabideak kontuan hartuta. Beste aldetik, lana proposamenak osatzen du; bertan, webguneak curriculumarekin duen lotura, ezaugarriak eta zelan sortu den azalduz. Amaieran, lanaren inguruko ondorioak azaldu dira, proposamenaren helburua zehaztuz, ahozketasunaren garrantzia bermatuz eta webgunearen onurak adieraziz.

1. Hizkuntza trebetasunak Lehen Hezkuntzan.

Lehen Hezkuntzan hizkuntza trebetasunak garatzeko, garrantzitsua da ahozotasuna lantzea eta hori lortzeko, eskaintzen diren programak, planak, ekimenak eta baliabideak ezagutzea funtsezkoa da.

1.1 Definizioa, garrantzia eta ezaugarriak.

Konpetentzia komunikatiboa pertsona baten komunikazio gaitasunaren termino orokorra da, bai hizkuntzaren ezagutza bai erabiltzeko gaitasuna biltzen dituena. Konpetentzia honen lorpena eskuratzeko, esperientzia soziala, beharrak eta motibazioak beharrezkoak dira; baita akzioa ere, motibazio, beharren eta esperientzien iturria delako (Hymes, 1972).

Gure haurtzarotik aurrera, gizakiok noiz hitz egin dezakegun edo noiz isilik egon behar dugun jakitearekin lotutako gaitasuna garatzen eta eskuratzen hasten gara; baita zer egin behar dugun, norekin, non, zertarako eta zelan ere. Hau da, txikitatik gure ama hizkuntzaren gramatikaz gain, bere erregistro desberdinak eta bere garrantzia ere ikasten ditugu (Hymes, 1972).

Ahozko adierazpenean komunikatzaile onak izatea, igorleen edo hartzaileen ikuspegitik, hizkuntzaren komunikazio trebetasunak menderatzea dakarren gaitasuna garatzean datza. Ahozko adierazpena konplexua da ebaluatzeko, baina denok ulertzen dugu zeinu linguistikoetan antolatutako eta gramatika konplexu batek araututako soinu akustikoak interpretatzea baino askoz gehiago dela. Pragmatikak urte batzuk daramatza hori gogoratzen, hizkuntzaren zentzu praktikora jotzen du diskurtsoaren erabilera sozialen interpretazioari eta testuinguru eta komunikazio egoerei garrantzia emanez (Martínez, 2002).

Prosodia ezaugarri suprasegmentalen multzoa da; barnean, aintzat hartzen ditu azentua, intonazioa, tonua, erritmoa, melodia, etenak, abiadura eta ahotsaren ezaugarriak. Funtzioa ahozko mezuaren edukia helaraztea da hizlariaren genero, adina, jatorria eta maila soziala bezalako datuak eskainiz (Etxebarria et al., 2016).

Etenak "hizketan tartekatutako isiltasun edo ahots bat" bezala definitzen dira eta isilak edo soinudunak izan daitezke. Isilen artean mota desberdinak bereizten dira: etenaldi hutsak, arnasketarekin lotutakoak, fonazio etena; eta mugatzailea edo estilistikoa, haien funtzioaren arabera. Soinudun etenak edo etenaldi osoak bokal luzapenak edo "eh" edo "mm" bezalako ahotsak dira (Etxebarria et al., 2016).

Abiada kontaketen gertaera bakoitzaren erritmoak eta denborak markatzeko erabiltzen diren teknikak dira, besteak beste, era mantsoan, arrapaladan, zorrotz eta leun berba egitea. Abiada estrategikoki erabiltzeak asko balioesten du, horren bidez atmosfera eta gertakari

desberdinen arteko bereizketak egitea ahalbidetzen duelako. Abiada kontzeptuaren barruan, erritmoa eta tempo kontzeptuak aurkitzen dira. Erritmoa hizkuntzaren fonologiaren propietatea da eta hizketaren denbora-egiturarekin lotuta dago. Tempo, oster, hiztunaren ezaugarriekin eta hizketa egiten den baldintzekin lotuta dago (García, 2017).

Bolumena inguruaren baldintzen (espazioaren tamaina, entzule kopurua eta bertan egon daitezkeen zaraten) arabera, egokitu behar da. Hala ere, bolumen altuegia edo baxuegia hedatzeak entzumena zaildu dezake, kontatzen denaren ulermena gutxituz. Haatik, bolumena kontalariak entzuleengana heltzeko ahotsaren hedadura maila izateaz gain, kontaketa beran erabiltzen duen baliabidea ere bada. Teorikoki kontaketa normalen zerbait nabarmendu nahi badugu, galdegaiaren bolumena batz besteko bolumen fuertagoa izaten da, baina balio pragmatikoaz baliatuz beste gauza askotarako ere erabiltzen da: pertsonaiak ezberdintzeko, sentimenduak adierazteko... (García, 2017).

Intonazioa prosodiaren bidez transmititzen diren informazio linguistikoaren barruan kokatzen da. Intonazioaren bidez, esaldiaren osagaien bat fokalizatzeko estrategia batzuk erabiltzen dira. Beraz, intonazioa da kontakizunaren gertakarien arreta deitzeko kontalariak erabiltzen duen baliabidea, kontatzen dagoen hori oharkabean pasa ez dadin. Teorikoki esaldiaren gorako intonazioa galdegaian eta beheazko intonazioa aditz nagusia eta gero ematen da. Intonazioaren frekuentziaren aldaketa hori egiteko tonu-bariazioa erabiltzen da. Hizkuntza bakoitzak, berez, badauka esaldien intonazioa normalizat edo ohikotzat hartzen den tonu-aldaketa eta ohiko ahozkotasunean naturalizat hartzen den intonazioa betetzen ez denean, kontrakotasuna (balio pragmatikoa) gauzatzen da kontalariaren partetik entzuleen arreta berenganatuz (García, 2017).

Beraz, ahozkotasuna lantzea ez da ohiko eskolak ematea eta batzuetan ahoz jarduteko ekintzak antolatzea. Ahozko komunikazio gaitasuna hobetzeko, eskolak ikasleei bideak eta tresnak eskaini behar dizkie. Hitz egiten irakastea ez da hitz solteak, esaldi laburrak eta esaldi luzeak irakastea; moldeak irakastea da. Bere baitan zentzua duten eta haurra edo heldua bizi den inguru sozialean zentzua eta nolabaiteko moldea garatu duten hitz-egintzak menderatzea lortu behar da. Beraz, alde batetik, eredu egokiarekiko kontaktua beharrezkoa da eta bestetik, eredu praktikan jartzeko ingurunea eta praktika bera (Ibarluzea, 2011).

Garrantzitsua da ahozkotasunerako jarrerak lantzea. Ezinezkoa da ahozkotasuna garatzea ikasgelan hitz egiteagatik ikaslea kaleratu egiten den hezkuntza ingurune batean bagaude; non ahozkoak ez duen lekuri gelan edo soilik irakasleengan. Ikasleak ahozkoaren garrantziaz ohartu behar dira, honek duen baliagarritasunaz, ahozko hizkuntza lantzeko haien guneak eta uneak egungo sistemara ekarriz (Ibarluzea, 2011).

1.2 Programak, planak eta lehentasunezko ekimenak.

(Data zehaztu gabe, [Elkarbizitza positiboa - Hezkuntza Berriztatzea](#)).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arabera, hezkuntza komunitatearen prestakuntza eta hezkuntza berriztatzeaz ari garenean, hezkuntza sistemaren arrakasta hartzen dugu kontuan; eta horren atzean egon ohi den faktore nagusia irakasleen prestakuntza, trebetasun, motibazio, inplikazio eta bokazio nahikoa da. Irakasleen prestakuntza oso lotuta dago hezkuntzaren helburuekin eta Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profilekin. Hori da hain zuzen hasierako eta etengabeko prestakuntzen gakoa eta horregatik, ezinbestekoa da hezkuntza komunitate osoak arduraz eta konpromisoz jardutea.

Prestakuntza nork bere burua ezagutzaren eraikuntzan trebatzeko prozesua da, hezkuntza jarduerak eta irakasleen garapen profesionala oinarriztat hartuta. Ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea dute, baita prestakuntza maila handia izan arren, etengabe ikasten jarraitzen duten profesionalen esku egotea ere, hezkuntza sistemak etengabe hobera egin dezan. Hona hemen lau programa nabarmen:

Prestakuntza Ekimen Globala (PEG) (2017, [Prestakuntza Ekimen Globala](#))

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren hitzetan, Prestakuntza Ekimen Globala Oinarrizko Hezkuntzako mailak (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei zuzenduta dago. Helburua ikasleen gaitasunen garapen-maila eta emaitzak hobetzea da, baita ikastetxe guztietan gaitasunen garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere.

Hori guztia zenbait jarduera eremu landuz egingo da, erantzuna sistemari buruzko txosten orokorretan (PISA diagnostiko ebaluazioetan) emateko. Hezkuntza Sailak bi zati nagusitan banatzen ditu PEG ezartzeari buruzko jarraibideak. Alde batetik, lehentasunezko eremuak, non, gaitasunetan zentratzen den; komunikatzeko gaitasuna, hizkuntza eta literatura komunikaziozko gaitasuna, zientziarako gaitasuna, matematikarako gaitasuna eta elkarbizitzarako gaitasuna. Eta beste aldetik, honen ezaugarriak eta ikastetxeetan garatzeko prozedura.

Bizikasi Ekimena (Data zehaztu gabe, [Bizikasi Ekimena](#))

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Bizikasi ekimenak ikastetxeak elkarbizitza positiborako espazio seguruak bilaka daitezen lagundu nahi du; hau da, inolako jazarpen egoerarik onartu gabe. Hori lortzea ezinbestekoa da hezkuntza sistemaren helburu nagusia betetzeko: ikasle guztien garapen pertsonalean laguntzea eta kompetentzia eta tresnak ematea, gizartean herritar aktibo eta arduratsu gisa parte hartzeko. Helburu hori lortu ahal izateko,

ezinbestekoa izango da Bizikasi garatuko den eremuetan elkarlana nahiz gizarte eta hezkuntza-komunitateko eragileen parte hartzea. Guztiok elkarrekin ikasteko eta prestatzeko aukera emateko lekua da, hezkuntzan egon daitezkeen eskola jazarpenaren faktoreen inguruan.

Hezkuntza sistemak eskola jazarpena ikasgeletatik desagerrarazteko ardura hartu behar du. Horretarako, ekintzak zentzuz garatu behar dira, bestela, ikastetxeak indarkeriarik gabeko guneak izatea ezinezkoa izango da. Eskola-eremuan, ikaskideen arteko indarkeriak asko zailtzen du gaitasunen garapena, ikasleok erabat garatzeko eta eskola-inguruneari atxikitzeko behar duten segurtasuna kolokan jartzen baitu.

Elkarbizitzak hainbat kontzeptu hartzen ditu kontuan, esaterako, kultura desberdinak errespetatzea, garapen emozionala, trebetasun sozialak eta balio moralak garatzea eta duintasuna, ekitatea eta inklusioa errespetatzea. Laburbilduz, elkarbizitza harremanak izatea da; norberarekin, besteekin eta ingurunearekin. Elkarbizitzen ikasi egiten da eta eskolak ikaste-prozesu hori planifikatzeko aukera ematen digu.

Irakurketa Plana (Data zehaztu gabe, [Irakurketa Plana](#))

Irakurketa Planaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak laguntza eta babes baliabideen multzo bat jartzen du hezkuntza-komunitatearen eskura. Ekimen honen helburua da, gure ikasleen irakurmena hobetzea eta haien artean irakurzaletasuna bultzatzea.

Irakurketa Plan honen testuinguruaren ezaugarriak oso zehatzak dira. Izan ere, EAEko hezkuntza-sistemak euskara dauka oinarri moduan eta bi hizkuntza ofizialen erabilera sozialaren desoreka berdintzearen erronka hartu du. Momentu honetan, erronka horri beste bat gehitu behar zaio: benetako sistema eleanitza bihurtzea eta atzerriko hizkuntza bat edo gehiagoren ikasketa modu eraginkorrean eta integratzailean egitea, elebiduntasunaren helburuekin, bi hizkuntza ofizialetan. Euskal hezkuntza-sistemaren berezitasunek arreta berezia behar dute hizkuntzen ikasketan eta tratamenduan.

Irakurtzea testu bat deszifratzeko gai izatea baino gehiago da. Testuarekin interakzionatzea da, irakurleak testua ulertzeko, interpretatzeko, erabiltzeko eta haren inguruan gogoeta egiteko bere ezagutza eta esperientziak ekarriz. Gainera, irakurtzea irakurlearen helburuekin lotuta dago eta horrek testuarekin era bateko edo besteko interakzioa izatea dakar.

Testuak ulertzea eta interpretatzea prozesu korapilatsua da, lan bat egitea eskatzen duena eta gure bizitzan denetarik egoeretan gertatzen dena, (lanean, gizartean, egoera akademikoetan, egoera pertsonaletan). Irakurleak gai izan behar du era bateko eta besteko testuen berezitasunak eta ezaugarriak ezagutzeko, nahiz eta euskarri eta formatu ezberdinetan ematen zaizkion eta informazioa bilatzeko, laburtzeko, interpretatzeko eta ondorioak ateratzeko eta testuaren edukia eta forma aztertzeko eta baloratzeko gai izan behar du.

Irakurmena oinarrizko komunikazio-trebetasuna da bai norberaren garapen pertsonalerako eta sozialerako bai eta ezagutzarako sarbidea izateko ere. Hortaz, Irakurketa Plana hobekuntzarako oinarrizko tresnatzat jotzen da. Irakurmenaren estrategiak zeharkakoak dira, oinarrizko kompetentziak eta irakurzaletasunerako motibazioa diren bezala.

Oinarrizkoa da ikasleen profil elebidunen aniztasuna, euskara eskuratzeko moduagatik (eskolan bakarrik, edo baita familian eta/edo inguruan) eta bizi diren inguru soziolinguistikoagatik baldintzatua dagoela. Beraz, esperientzia linguistikoak oso anitzak dira euskal gazteen artean eta ezarritako helburuak lortzeko ezinbestekoa da askotariko tratamenduak pentsatzea bai planifikazio-mailan bai maila didaktikoan.

Ikastetxeko Irakurketa Plana batez ere, ikasleen irakurketa-gaitasuna hobetzeko da, baina ahozko komunikazio-gaitasuna, hitzik gabeko komunikazio-gaitasuna eta komunikazio-gaitasun digitala lortzeko lagungarria da ere, ulermenezko ekintzak oso lotuta baitaude beste hizkuntza-gaitasunekin eta elkarri eragiten diotelako.

Hamaika Esku. (Data zehaztu gabe, [Hamaika Esku](#))

Hamaika Esku programa aniztasunari erantzuteko programa da. Hezkuntza Sailak eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana 2016-2020 onartu zuen, ikasle sartu berriak eta atzerritar jatorriko familiak gure hezkuntza-sisteman sar daitezen laguntzeko, gizartean benetan parte hartzea sustatuz, eta arau, antolamendu eta metodologia-ekimenak sustatuz; betiere, hezkuntza-sisteman sartzea eta bertan jarraitzea errazteko jarduerak laguntzeko eta aurrerapen linguistiko, akademiko, pertsonal eta profesionala errazteko, jatorrizko kulturak aintzat hartuta.

Programa honekin, ikasleen gaitasunen garapen-maila hobetu nahi da eta, helburua emaitza negatiboak aldatzea da eta, gero, ikasle horiek hasierako mailatik maila ertainera igarotzea. Horretarako, ikastetxe, familia, hezkuntza administrazio eta Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa beharrezkoa da.

Hamaika Eskuren lehen faseak hiru ikasturteko iraupena izango du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren baliabideak martxan jarritz; esaterako, ikuskapenak eta laguntza zerbitzuak, lehentasunezko tratamenduak, eragina duten agenteen lankidetzak eta inplikazioa... Horrekin batera, zenbait irizpide hartzen dira kontuan, horren adibide: ikasleen premietara egokitzea, irakaskuntza-ikaskuntza helburuek lehentasuna izatea, estrategien aniztasuna kontuan hartzea, ebaluazioa arretaz jarraitzea, inplikazioa eta irakasleen prestakuntza presente egotea, praktikaren inguruko hausnarketa egitea, hezkuntza komunitateari informazioa ematea, besteak beste.

Azkenik, sei dira ildo nagusiak programaren helburuak bete ahal izateko. Hasteko, sustapena, jarraipena eta koordinazioa; hau burutzeko, Batzorde Orokorra, Teknikoa eta Ikastetxeko Batzordea ezarri dira. Bigarrena, antolamendua eta plangintza, zuzendaritzak eta ikastetxean konpromisoa hartzen dutenek burutzen dute. Hirugarrena, baliabideak eraginkortasunez antolatzea, hau da, baliabideen erabilera hobetzea, koordinazio lana eta guztien parte hartzea sustatzea. Laugarrena, neurri espezifiko berriak kontuan hartzea (Unibertsitateko practicum-a, Irakasleen Unibertsitateko Eskolak eta beste erakundeetako proiektuak). Bosgarrena familien inplikazioa (informazioa eta partaidetza, prestakuntza eta ikas komunitateak) eta seigarrena eragileekin lankidetzan aritzea, esaterako, osasun saila eta gizarte politika saila. Hau guztia kontrolpean izateko, segimendua egingo da eta ebaluazioaren inguruko txostena ere beteko da, emaitzen inguruko ikuspegi orokorra izateko.

1.3 Hizkuntza trebetasunak euskaraz lantzeko baliabideak.

Hizkuntza trebetasunak lantzeko, ezinbestekoa da ikasleei baliabideak eskaintzea. Hauek dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean Irakurketa Planak eta Bizikasi Ekimenak eskaintzen dituztenak.

Eskoletan irakurketaren inguruko lana hiru ardatz nagusitan banatzen da: irakurtzen ikastea (irakurtzeko gaitasuna garatzea), ikasteko irakurtzea (irakurketa ezagutzaren garapenerako eta ikaskuntzarako funtsezko tresna moduan) eta irakurzaletasuna (garatzea).

Irakurketa Planaren “Baliabide Bankuak” irakurketa lantzeko aukerak eskaintzen dizkigu (aurreko ardatzen arabera sailkatuta). Gainera, ebaluazioarekin lotutako atala ere eskaintzen da. Irakurketa Plana lantzerako orduan, aintzat hartzeko, era askotako baliabideak aukeratu dira, esaterako: hausnarketarako artikuluak eta bideoak, jarduerak, testuak, planteamendu metodologikoak, unitate didaktikoak...

Ardatzak atal desberdinetan antolatzen dira. “Irakurtzen ikastea”, kontzientzia fonologikoa, fonetika, jarioetasuna, lexikoa, ulermena lantzeko eta ikasleen aniztasuna

kontuan hartzeko. “Ikasteko irakurri” bost ataletan: gogoeta egiteko (testuak ulertzen laguntzeko gakoak), irakurketa estrategiak lantzeko, irakurketa prozesuak lantzeko, zer irakurri eta zer egin. Azkenik, “irakurzaletasuna” burutzeko, hiru atal hartzen dira kontuan: gogoeta egiteko, zer irakurri eta zer egin. Hau guztia landu ahal izateko, egokiena gelan dinamika desberdinak proposatzea da, estrategia kooperatibo eta elkarreragileak kontuan edukiz; horien adibide: irakurketa partekatua, irakurketa dialogikoa, bikoteka irakurtzea, boz gorako irakurketa, bakarkako irakurketa eta irakurketa gidatua.

Bizikasi Ekimenean “Ikasgelarako BAT materialak” erabiltzeko aukera eskaintzen da. Hauen betekizuna ikasleak berak jazarpenarekin lotutako jokabideak moztea da, banaka zein kolektiboki hartutako konpromisoen bitartez. Ikasmaterial hauek Elkarbizitzarako kompetenziaren osagaietan oinarritzen dira, eta bereziki kompetentzia hori eta Norbera izaten ikasteko kompetentzia garatzeko tresnak eta prozedurak eskaintzen dira. Horrela, oinarrizko zehar-kompetentziak eskuratzeko prozesuan urratsak egiteko aukera eskaintzen dute ere.

Materialak lau lan eremutan banatuta daude (BAT kanpaina gehituz): “ni eta nire taldea”, “gure arteko harremanak”, “eta gure harremanak onak ez direnean”, “ondo konpontzen gara” eta “BAT kanpaina”. Kontuan hartu beharreko bi alderdi daude: edozein lan-eremu aukeratzen dela ere, haren barne-sekuentzia errespetatu beharko da, eta, aukeratutako lan-eremuaren lanketa horri beti gehitu beharko zaio BAT kanpaina: ingurune segururako konpromisoa esparrua. Ez dugu ahaztu behar ikasmaterialek ikasleengan jazarpenaren aurka eta bizikidetzaren positiboaren aldeko konpromisoa lortzea dutela helburu.

Jarduerak, tutoretzarako diseinatuta daude, beraz, jardueren ezaugarrien arabera, irakasle taldeak erabakiko ditu uneak eta guneak. Hainbat jarduera ikastetxe-mailan egiteko dira, eskola-jazarpena ez da soilik ikasgelako kontu bat, hezkuntza-komunitate osoari eragiten dio. Beraz, denon artean ebatzi behar den egoera da; hori dela eta, zenbait jarduera egin ahal izateko, batzuetan koordinazio-guneak antolatu beharko dira. Ikasmaterial hauek bi ikasturtetan burutzeko prestatuta daude, hortaz, tarte horretan diharduten irakasleek ikasturtearen arabera egin beharko dute aukeraketa. Aukeraketa burutzeko, atal bakoitzean irakasleek jarduera bat aukeratuko dute ikasturte bakoitzerako. Eskaintza zabala da eta jarduera sakontasun- eta konplexutasun-mailari erreparatuz aukeratu daiteke.

2. Garapen Iraunkorrerako Helburua: Elkarbizitza eta hezkidetzak.

Garapen Iraunkorrerako Helburuari buruz hitz egiteko, honen definizioa eta garrantzia, II. Hezkidetzak Plana, protokoloak, plangintzak eta gidak eta baliabideak jorratuko ditugu.

2.1 Definizioa eta garrantzia.

Gaur egun, genero indarkeria arazo sozial handienetako bat izaten jarraitzen du. Prebentzioan oinarritutako hezkuntza eta esku-hartze sozioedukatiboak funtsezko tresnak dira genero indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketa desagerrarazten saiatzeko. Gizarte arazo bat aldatzeko, lehenik eta behin arazoa ezagutu behar da eta, beste gai batzuen artean, garrantzitsua da gazte eta nerabeen talde harremanak nola eraikitzen eta bizitzen diren ulertzea, hezkuntza eta irakaskuntza genero berdintasun ikuspegi batetik planteatzeko (Gallardo et al., 2020).

Emakumeek eta gizonak berdinean eta diskriminaziorik gabe elkarrekin bizi ahal izateko gizartearen lortzeko, beharrezkoa da ikasleei hezkidetzan hezteko, emakumezko ikasleen gaineko botererik izan ez dezaten eta detektatzen eta saihesten jakin dezaten (Gallardo et al., 2020).

Eskola elkarbizitza eragile instituzional guztien arteko harremana da. Horrek esan nahi du haurrek, gazteek eta helduek bizikidetzan parte hartzen dutela, eskubideak eta betebeharrak esleituz. Elkarbizitza eskola komunitateko kide guztien arteko harremanen emaitza da, betetzen duten papera edozein dela ere. Horregatik, bizikidetzaren ez da zerbait egonkorra, eraikuntza kolektiboa eta dinamikoa baizik; aldaketen menpe dago, kideen arteko harremanak denboran zehar aldatzen baitira (Banz, 2008).

Esperientziak bizikidetzaren kalitatearen eta ikaskuntzaren kalitatearen artean dagoen harremana baieztatzen aukera ematen digu. Horrela, bizikidetzaren kalitatea lortzeko helburuak ikasleen bizitza pertsonalaren eta komunaren kalitateari nabarmen eragingo dio, herritartasunerako trebakuntzan garrantzia duen faktorea izango da eta ikaskuntza kognitiboaren kasuak bultzatuko ditu, lorpenak eta emaitzak hobetuz (Banz, 2008).

Hezkidetzaren bidez eskubidea eta hezkuntza xedea izateaz gain, Derrigorrezko Hezkuntzak etorkizuneko herritarren prestakuntza kritikoa eta integrala lortzeko transmititu behar dituen balioetan kokatzen den edukien multzoari dagokio. Hezkidetzaren, zalantzarik gabe, egungo hezkuntza sisteman berebiziko garrantzia duen gaia da ikasleei prestakuntza integrala eskaintzeko; etorkizuneko bizitza errespetuzkoa izan dadin, non genero diskriminazioarentzat lekurik ez dagoen (Leiva, 2010).

Hezkidetzaren ikasle guztien garapen integral moduan ulertzen dugu, neskak zein mutilak beste sexuaren ezagutzari eta bien arteko elkar aberasteari arreta berezia jarritz. Hezkidetzaren helburuek estereotipo sexistak zuzentzea dute helburu, estereotipo sexistak ezabatzen dituen curriculum orekatua proposatuz eta sexua edozein dela ere gaitasun indibidual guztiak garatuz. Ildo horretako hezkuntza esku-hartzeak balio etikoak, jarrerak eta

portaerak sustatzea dakar, baita gizartean bizikidetzan eta arazoetan eragina duten gatazken aurrean jarrera kritikoak garatzea ere (Leiva, 2010).

Bizikidetzak da giza harremanetan alderdi garrantzitsuenetako bat. Harreman horien agerpen natural gisa, desadostasunak, komunikazio desegokia eta abar sor daitezke. Horrek pertsonen arteko gatazkak sor ditzake; beraz, bizikidetzak eta gatazka agertoki berean aurkezten dira. Baina ezin dugu alde batera utzi gatazkak batzuetan modu bortitzean konpontzen diren gizarte batean bizi garela eta, egoera bortitzak modu isolatuan agertzen diren arren, ezin dugula ukatu existitzen direnik (Grande, 2010).

Eskolak fenomeno honen aurrean ere badaude, azkenaldian prentsan agertu diren artikulak ugariak erakusten duten moduan, eskola gatazka gizartearen kezka nagusietako bat bihurtu da, nahiz eta hezkuntza praktika gehienak onerako diren, (pertsonen arteko harremanak lankidetzak, laguntza eta estimua izan ohi direlako). Ikaskideen eraso edo jazarpen/gaitzespen kasu zehatzek, irakasleen kezka nagusietako bat ere bihurtzen dute, eta, beraz, gero eta handiagoa da gaia jorratzearen garrantzia (Grande, 2010).

2.2 II. Hezkidetzak plana (2019, II. Hezkidetzak Plana)

Hezkuntza Sailaren arabera, II. Hezkidetzak Planak aurreko Planean hasitako inplikazioa eta elkarlana azpimarratzen du, diseinu eta garapen etapan topaketarako eta kontrasterako aukera egon dadin. Helburua hezkidetzako eskolaren eremuan aurrera egiten jarraitzea da, kontuan hartuta hezkidetzako eskolak helburu duela mota guztietako sexismoa gainditzea, genero-berdintasuna lortzeko lan egitea eta emakumeen aurkako indarkeria eta sexismo hori jatorrian duen edozein indarkeria prebenitzea eta berarekin amaitzea.

Hezkidetzak elementu nagusia da genero aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko. Eskola funtsezko eragile sozializatzailea da eta testuinguru horretan, ikastetxeak ezinbestekoak dira ikasleen artean botere-harremanak eraldatzen laguntzeko. Horretarako, aldaketa batzuk egin behar dira, berdintasunean oinarritutako eta indarkeriarik gabeko hezkuntza bermatzeko. Era berean, espazio egokiak dira, ikasle guztiak dauden sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuan sozializatzen. Hala ere, eskolak, ezin dio erronka horri berak bakarrik aurre egin, eskolaz gain, gizarte osoaren inplikazioa behar da.

Eusko Jaurlaritzako Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumean esparru pedagogikoan formulatzen diren hezkuntza-oinarrietako batek ezartzen duenez, Oinarrizko Hezkuntzako hezkuntza-eskubidea bermatu behar die pertsona guztiei; hezkuntzako inolako bazterketarik gabe, aukera-berdintasuna eskaini behar du, eta desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta pertsonalak konpentsatu egin behar ditu. Bai Administrazioak eta hezkuntza-arduradunek bai hezkuntza-komunitateko profesionalek eta partaide guztiek bultzatuko dute inklusioa,

oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza amaitu arte. Horrekin batera, modu osagarrian, hezkuntza-sistemak erronkatzat hartu behar du ahalik eta ikasle gehienak bikaintasunera eramatea.

Hauek izango lirateke hezkidetzako eskolak planteatzen dituen helburu nagusiak: Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsoez hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapetan; ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

Hezkidetzako eskolaren bidean aurrera egiteko oinarrizko elementua hezkuntza-sistema ahalduntzea da, aldaketarako motor moduan erabili ahal izateko. Ahalduntzeaz eta autokritikaz gain, beharrezkoa da, aldi berean, norabide honetan urratsak ematea: emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta hezkidetzaren sustatu, koordinatu eta jarraipena egiteko egitura egonkorra sortzea, hezkidetzaren prestatutako irakasleak izatea, familiek eskolan esku hartzea, ikastetxetara egokitutako Hezkidetzaren plana ezagutzea eta Ikasgelan hezkidetzaren materialak txertatzea.

Plan honen proposamena da ikastetxeek hezkidetzaren zutabe nagusiak barnean hartuko dituzten baterako ekintza sistematikoak garatzea. Horrela, berdintasunezko oinarriak eraikiko dira eta oinarri horiek emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa izango dira. Zutabeek zortzi ideia hartzen dituzte kontuan: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista, emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen sozial eta historikoa, gatazken eraldaketa baketsua, autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa, espazioak ikastetxean, berdintasunezko hezkuntza afektibo eta sexuala eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea.

2.3 Protokoloak

Hauek dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen hezkidetzaren protokolo nagusiak:

[Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea.](#) (2016, [Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea](#))

Protokolo honetan, alde batetik, emakumeen genitalen mutilazioa zer den azaltzen da, hau definituz, dauden motak adieraziz eta zergatik egiten den azalduz; horrekin batera, mutilazioa zein lurraldetan eta zergatik praktikatu den adierazten da. Beste aldetik,

profesional moduan zelako erantzuna eduki behar den azaltzen da, hots, neskak babestu behar direla haien eskubideak bermatuz. Gainera, EAE-n profesionalki jarduteko printzipioak agertzen dira ere, horien adibide, giza eskubideak, generoa eta haurrak babestu, prebentzioa azpimarratu (prebentzioa da helburua), familiekin lan egin, estigmatizatzea saihestuz, komunitate-lana egin eta kulturen arteko lana egin...

Eta azkenik, ikastetxean jarduteko protokoloa azaltzen da; hiru ideia nagusitan oinarrituz: matrikulazioan eta urtean zehar, gero, neskak bidaiatu aurretik: txertoa aitzakiatzat hartuko da, osasun sistemarekin segimendua egiteko eta amaitzeko, neskak bidaiatu ondoren: bidaiatik bueltatzen denean desberdin jokatzen badu (triste agertzen bada, edo isolatuta...), zuhurrena da arreta handiz behatzea neskak eta harekin hitz egitea, jokabide-aldaketa horrek ez baitu zertan esan nahi genitalen mutilazioa egin diotenik. Baina neskak osasun galera edo arriskuren bat duela susmatzen bada, familiarengana jo beharko da (baita pediatra edota gizarte zerbitzuetara ere).

[Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako eskuliburua](#). (2016, [Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako eskuliburua](#))

Protokolo honetan, generoarekin edo genero indarkeriarekin lotura zuzena duten gaiak jorratzen dira, adibide batzuk: hezkuntza-komunitatea eta genero indarkeria, parekidetasun eza, hautematea, tolerantzia, erakargarritasuna, maskulinitate hegemonikoa, nesken gorputza, sedukzioa, maitasuna, kontrola eta jeloskortasuna, ziber indarkeria... Horrez gain, genero indarkeria saihesteko jarraibideak ere azaltzen dira.

Lehenengo jarraibidea hezkuntza-komunitatearekin elkarriketarako guneak sortzea da. Hezkuntza komunitatea nabarmena da genero-indarkeriaren aurkako sentsibilizazioan, prebentzioan eta kide guztiak kontuan izango dituen ekintzak prestatzen. Biktimak babestu eta erasotzaileak gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen eta bultzatzen duten arrazoiak identifikatu eta landu behar ditu. Hau bultzatzeko, ekintza desberdinak antola daitezke, hala nola, tailerrak, batzordeak, hitzaldiak, guztientzako formazioak, solasaldiak eta mota guztietako ekintza kolektiboak. Honen bidez, sentsibilizatzea, hezitzea, inplikatzeko eta eztabaidatzea lortuko da.

Bigarren jarraibidea “tolerantzia zero, zerotik” da. Tolerantzia zero sozializatzea, gaizki tratatzen dituzten pertsonen jokabideen bazterketa sozializatzea da. Tolerantziaren inguruan aritzeko, zazpi ideia joratu behar dira: laguntasunaren sentimendua hezi, erakargarritzat hartu berdintasunezko jarrerak, aniztasunean hezi, mugak jarri indarkeriaren edozein adierazpeneri, ez txikiagotu indarkeriaren inolako adierazpenik, babestu biktimak baldintzarik gabe eta erakutsi frustrazioa lantzen.

Hirugarrena isiltasunaren legea haustea da. Erakutsi egin behar dena, salatzea ausarten jokabidea dela da eta isiltzea koldarrarena. Beraz, ez da ez ikusiarena egin behar ezta isildu ere; elkartu baizik. Laugarrena, plan afektibo-sexualetan aurreikusteko irizpideak. Honetan, zenbait ideia lantzea beharrezkoa da; erakarpena, etika eta desioa, elkartasuna, laguntasuna eta aukeraketa, maitatzen ikastea, begirada kritikoa eta indarkeria.

Eta bosgarrena, ziber indarkeria saihestea. Hau saihesteko, oinarrian dauden gaiak lantzeko aprobeztatu daiteke, baita ikasgelan sareen erabilera landu ere. Horrekin batera, argi gelditu behar da sexua ez dela arazoa eta garrantzitsua dela sareetan gezurrik ez esatea. Guztiak gaude jazarpenaren aurrean, horregatik, ziber indarkeriarekin amaitu behar da, ez gara ez ikusiarenak egin behar.

2011ko ekainaren 20ko Aginduak arautu egiten ditu, hezkuntzan, lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak. (2011, [Lanean jazarpen sexista edota morala](#))

Testu honetan, lanean jazarpen moral edo sexista egonez gero edota salaketak jarriz gero jarraitu beharreko prozedura azaltzen da. Testuaren edukia Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeko kideek adostu dute eta Hezkuntza Administrazioan prebentzioa, segurtasuna, laneko osasuna eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, baita diskriminazioa ez jasotzeko eskubidea ere, integrazteko nahiaren adibide argia da. Gainera, testuak, langile guztiek nagusi eta lankideen artean, berdintasuna, errespetu eta duintasunezko tratua jasotzeko beharrari erantzuten dio.

Prozeduran, alde batetik, bitartekaritza deituriko aldez aurreko fasea zehaztuko da; helburua langileen arteko gatazkak edo antolakuntzakoak azkar eta eraginkortasunez konpontzea izanik, hasierako haserrea larriagotu eta iraunkortu ez dadin. Helburua lortzeko biderik eraginkorra langileen kudeaketaz arduratzen diren organoak jokabide mota horiek prebenitzen eta gidatzen inplikatzeko dela deritzote.

Hala ere, garrantzitsua da jakitea lanean gertatzen den jazarpen morala eta sexista laneko arrisku larriak direla eta jazarpena pairatzen duenaren duintasun pertsonal edota profesionalari erasotzen diotela. Horrez gain, argi eta garbi gaintzen dituzte pertsonen arteko ohiko gatazken mugak, izan ere, kalteak eragin diezazkiokete pertsonaren osasunari, eta batzuetan oso zaila izaten da horiek konpontzea. Hori dela eta, eta bitartekaritza-faseak huts egingo balu, ikerketa fasea deritzona garatu da.

Fase horri esker, eta ikerketa sakon baten ondoren, beharrezko neurriak hartu ahal izango dira, beldurtzeko helburua duten jokabideei amaiera emateko eta biktimen eskubideak eta, batez ere, osasuna babesteko. Amaitzeko, azpimarratu behar da Administrazio honek

langileen artean emakumeen eta gizonen tratuan berdintasuna eta langileen eskubideak errespetatzeko informazioa eta hezkuntza sustatu nahi dituela.

Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa. (2011, [Sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloa](#))

Enpresa guztiek sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesten duten lan-baldintzak sustatu behar dituzte eta prozedura espezifikokoak hartu behar ditu jazarpena prebenitzeko eta jazarpenaren biktimek aurkezten dituzten salaketak edo erreklamazioak bideratzeko.

Protokolo honen bidez, horri erantzun nahi zaio. Era berean, Emakundek enprekin, aholkularitzekin eta beste erakunde pribatu batzuekin egindako lanean identifikatutako beharrari aurre egin nahi zaio: tresna bat eskaini nahi zaie, laneko sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzea ahalbidetzen duena eta indarkeria mota hori gertatzen denean jarraitu beharreko prozedura zehazten duena. 50 langiletik gora dituzten enpresa guztietan aplikatzeko da, baldin eta protokoloa ezartzea adosten bada. Langile-zerrenda txikiagoa duten enpresak ere atxiki dezakete, betiere, berme-prozedura egokitu eta gero.

Protokoloa aplikatzeko, beharrezkoa izango da aholkulari konfidentzial bat izendatzea, berak salaketak jaso ditzan; aurkeztutako salaketak eta espedienteen ebazpena kontrolatuko ditu, bi urtean behin protokolo honen ezarpenari buruzko jarraipen-txostena egiteko. Txostena zuzendaritzari, ordezkaritza bateratuko eta sindikatuetakoa organoei, eta lan-arriskuen prebentzioaren alorreko ordezkaritza-organoei aurkeztuko zaie, baita Emakunderi ere, Euskadin lan-arloko indarkeria prebenitzeko prozedurak aplikatzeari buruzko txosten orokor bat egiteko helburuarekin.

Aplikazio-mailaren jarraipena eta hedapena Emakundek egingo du, sexu jazarpena eta jazarpen sexista zer diren jakinarazi behar zaio gizarte osoari, enpresariei, sindikatuei eta lankideei. Erakunde guztietan arazoa prebenitzeko eta tratatzeko protokoloak ezarri behar dira, haren benetako eragina azaleratzeko, biktimek benetan babesteko, behar bezala artatzeko, eta hura desagerrarazteko. Helburu hori betetzen Euskal Administrazio osoa dago inplikaturik.

2.4 Plangintzak eta gidak.

II. Hezkidetzaren Planaren helburuak garatzeko lan-plangintza jarraitu behar da. Lehenengo helburua Hezkuntza Saila eta Hezkuntza-sistema prestakuntzaz, egiturez eta pertsonen hornitzea, hezkidetzako eskola-eredua era koordinatuan eta integralean bultzatzeko da. Honen barruan dauden azpi helburuak lantzeko antolaketa jarraitu behar da.

Kasu honetan, 20 ekintza aurkezten dira, ekintza bakoitza adierazle bati lotuta dago. Horrekin batera, ekintza bakoitza burutzeko egongo diren arduradunak aurkezten dira, baita aldia ere; hau da, ekintza bakoitza zein ikasturtetan burutuko den. Esaterako, lehenengo ekintza “hiru lurraldeetan hezkidetzaren arloan zonako mintegiak eskaintzen jarraitzea” da eta adierazlea “mintegiak Berritzegune guztietan egitea, Berritzeguneetarako orientabideetan ezarritako aldizkakotasunaren arabera”. Arduradunak, zuzendaritzak, Berritzeguneetako arduradunak, Berritzegune Nagusia eta 3 lurraldetako HB arduradunak izango dira eta azkenik, ekintza hau lau ikasturteetan burutuko da.

Bigarren helburuari dagokionez, Ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, antolaketa berdina da; helburua garatzeko, azpi helburu bakoitza ekintza, adierazle, arduradun eta aldietan antolatuta dago ere. Kasu honetan, 16 ekintza desberdin daude, esaterako, irakasleei curriculum genero ikuspegitik lantzeko jarraibideak eskainiko dizkieten gidak eta materialak egitea (Hezkidetzaren zutabeetan oinarrituz). Hori betetzeko adierazlea zutabe bati lotutako material bat erabiltzea da eta zonako Berritzeguneetako mintegien bidez helaraztea. Arduradunak Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Berritzegune nagusia, Emakunde eta UAI Berdintasuneko Teknikaria izango dira. Ekintza hau 2020-21 eta 2021-22 ikasturteetan burutuko da.

Azkenik, hirugarren helburua Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea da. Aurreko bi helburuen antolaketa bera jarraitzen da (ekintza, adierazlea, arduraduna eta aldia). Horren adibide; ekintza Prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea da, Emakunderekin elkarlanean. Adierazlea: hainbat proiektu jarri dira abian (Nahiko, Beldur Barik, Gizonduz, Jabetuz). Arduradunak: Emakunde, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Berritzegune Nagusia, Zonako Berritzeguneak eta UAI- Berdintasuneko teknikaria. Ekintza hau lau ikasturteetan burutuko da.

2.5 Baliabideak

Euskal hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunerako eta tratatu onerako bidean finkatzeko, honako baliabide hauek behar dira. Hasteko, prestakuntza ahalbidetzea, helburu honekin zerikusia duten ekintzetan: prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, hezkuntza-komunitate osoak eta Hezkuntza Saileko zerbitzuek hezkidetzan prestakuntza dutela bermatzeko. Batez ere, Berritzeguneetako langileek (mintegiak, ponentziak, ikastaroak, jardunaldiak ...), hainbat erakundek (Prest-Gara eskaintza) eta UPV/EHUK.

Horrekin batera, ikastetxeetan hezkidetza-planak egiteko, ezartzeko eta horien jarraipena egiteko laguntza-zerbitzuen (Berritzeguneak) aholkularitza ahalbidetzea, helburu honi lotuta: hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea. Jarraitzeko, ikastetxeei laguntzeko orientabideak, materialak, baliabideak eta abar prestatzea, beren dokumentuak, praktikak... berrikusi eta eguneratzeko genero-ikuspuntutik eta hezkidetza-planak garatzen lagunduko dieten erabakiak hartzeko; bi helburu hauei lotuta; emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen aginduak betetzeko helburuarekin, curriculumean genero-ikuspegia gehitzeko hobekuntza-proposamenak lantzea eta hezkuntza-komunitatea prebenitzea eta sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeria garaiz detektatzeko.

Zonaldeko Berritzeguneetako kideak, Berritzegune Nagusiko kideak, Ikuskaritzako kideak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Teknikaria – hezkuntza esparrua – eta EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea izango dira, gehienbat, material horiek egingo dituztenak. Era berean, sailetik kanpoko espezialistek egiteko aukera ere aurreikusten da. Azkenik, baliabideekin amaitzeko, ikastetxeak baliabidez hornitzea hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko lana garatzeko eskatzen da, betiere, hezkidetzari buruzko proiektuen lanketa bultzatzea helburuari lotuta.

3. Webgunea: Mintzagunea.

<https://itziaranakabe5.wixsite.com/mintzagunea>

Heziberri 2020 Oinarrizko Hezkuntza Curriculum-aren 236/2015 abenduaren 22ko Dekretua kontuan hartuta ([Oinarrizko Hezkuntza Curriculum](#)), webgune hau sortu da. Mintzagunea ahozkoasuna lantzeko webgunea da. Helburua euskaraz ahozko zein idatzizko trebetasunak garatzea da, zeharkako gai bat erabilita, hain zuzen, genero berdintasuna elkarbizitzan eta hezkidetzan.

3.1 Mintzagunea eta curriculum-a.

- Helburuak.

Bai webgunean aritzeagatik bai ahozkoasuna lantzeagatik helburu ugari egon daitezke baina landuko diren gaiak kontuan hartuz, helburu nabarmenenak hiru dira:

1. Ikasleek idatzizko eta ahozko trebetasunak garatzea eta hauek egunerokotasunean duten garrantziaz hausnartzea.
2. Ahozkoasuna lantzea eta horretarako baliabideak eskaintzea (informazioa eta jolasak).
3. Ahozkoasuna lantzearekin batera zeharkako gai baten inguruan (kasu honetan, genero berdintasuna) ikasteko eta hausnartzeko aukera izatea.

- Konpetentziak.

Webgune honen helburua ikasleek zenbait gaitasun garatzea da, horien artean, oinarrizko zehar konpetentziak eta oinarrizko diziplina barneko konpetentziak. Oinarrizko zehar konpetentzien artean, bostek dute garrantzia:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.

Konpetentzia honek hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala jariez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea hartzen ditu kontuan. Hau, webgunearen bidez zuzenean garatzen da; izan ere, teknologia baliabide gisa erabiltzen da ahozkotatua eta komunikazioa garatzeko.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. Konpetentzia honek informazioa ulertzea eta adierazten jakitea du helburu. Umeei ikasten eta pentsatzen jakitea garatu behar dute eta hori lortzeko webgunea baliabidea da; bai informazioa barneratzeko aukera ematen duelako bai jolasetan barneratutakoa aplikatzen delako.

3. Elkarbizitzarako konpetentzia. Honetan garrantzitsuena norbera eta besteen sentimendu, nahiak eta pentsamenduak kontuan hartzea da. Hori zeharkako gaia (genero berdintasuna) eta taldeka, bikoteka edota banaka jolasteko jolasak daudela kontuan hartuta, ere bete egiten da; guztiak elkarren artean errespetatu behar baitira.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia. Webgunean konpetentzia hau ere kontuan hartzen da, ikasleei, haien kabuz aritzeko aukera ematen zaielako, esaterako, jolasetan. Beraz, esan daiteke autonomia eta sormena presente daudela uneoro.

5. Norbera izaten ikasteko konpetentzia. Konpetentzia honek hitzezko komunikazioa, hitzik gabekoa eta komunikazio digitala autoerregulatzea du helburu. Horrekin batera, ikasteko prozesua, jarrera eta motibazioa autoerregulatzeari ere garrantzia ematen dio. Hau webgunean zehar betetzen da, bai teoriaren inguruan hausnartzerakoan bai jolasetan praktikan jartzean, ikasleak haien buruen gidari direlako (nahiz eta irakasleen laguntza eskura izan).

Oinarrizko diziplina barneko konpetentzietan, hiru hartzen dira kontuan:

1. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia. Web orriaren bidez, ahozkotatua bultzatu nahi da, hain zuzen ere, hizkuntzaren garapen egokia (zehatz mehatz euskararen garapena); helburua, umeen arteko komunikazioa egokiagoa izanik, hortaz, konpetentzia hau betetzea funtsezkoa da.

2. Konpetentzia sozial eta zibikoa. Gaitasun hau presente dago bai webgunean bai haien artean lan egiten dutenean ere. Izan ere, eskaintzen diren jolasetan, banaka, binaka edota taldeka aritzeko aukera ematen da, beraz, norbera eta besteekiko errespetua funtsezkoa izango da.

3. Arterako kompetentzia. Webgunean bideo, komiki, antzerki eta hitz jolasekin arituko dira, beraz, artea presente egongo da. Horrekin batera, ezinbestekoa izango da sormena eta jarrera aktiboa martxan jartzea, hortaz, arte adierazpena haien arteko komunikazioan egotea ezinbestekoa da.

3.2 Ezaugarriak.

- Webgunearen atalak.

Mintzaguneak sarrera eta lau atal nagusi ditu Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei bideratuta. Sarreran, behar izanez gero, kontaktuan jartzeko email-a dago baita webgunea erabiltzeko irakasleentzako gida ere.

Lehenengo atala “Web-a ezagutu” da. Atal honetan, umeei bideratuta, Mintzagunea laburki zer den azaltzen da; hain zuzen ere, webgunearen helburua, zer landuko den eta ikasleek zer egingo duten. Horren harira, azpi atal batean, bideo baten bidez, landuko duten gaia azaltzen da, zehazki, ahozkotasuna. Bideoa ikusi eta gero, hausnartzeko aukera ematen da, hots, ikasleek haien pentsamenduak adieraztea, iritzia partekatzea...

Bigarren atala “Zertaz hitz egingo dugu” da. Honetan, ahozkotasuna lantzeko, zeharka erabiliko diren gaiak bideoen bidez azaltzen dira, kasu honetan, lanbideak, kirolak eta jostailuak. Laburki azalduta, gai hauek neska eta mutilen artean suertatzen diren desberdintasunen inguruan hausnartzeko aukeratu dira eta jolasak burutzeko presente edukitzea ezinbestekoa izango da. Bideo hauen ostean, bertan agertzen diren galderekin, ikasleen artean elkarrizketak sortzeko aukera ematen da.

Hirugarren atala “Jolastuko gara” da. Jolasetan aritu baino lehen, bideo bat ikusteko eta podcast-ak entzuteko aukera ematen da. Elkarrizketak sortzeko ideiak ematen dira; hala nola, zelan hasi eta amaitu elkarrizketa bat (informala edo formala den kontuan hartuz), zelan aurkeztu gure burua (izena, adina, nongoak garen eta zaletasunak) eta azkenik, erabiltzen diren esaldien arabera (galdera, harridura, agindua...) hitz egiteko modua aldatzen dela etenek, abiadurak, bolumenak eta intonazioak baldintzatuta.

Webgunean dauden jolasak aurkezten dira eta azpi ataletan jolas bakoitza azalduta agertzen da (komikiak, antzerkiak, bideoak eta hitzak asmatzea). Jolasetan aritzeko ezinbestekoa da ahozkotasunaren eta lanbide, kirol eta jostailuen inguruko bideoak kontuan izatea. Gainera, aipatzekoa da, ikasleek jolas desberdinak sortu nahi izanez gero, baliabideak ere eskaintzen direla.

- Komikiak: idazmena eta sormena garatzeko erabilgarriak dira. Ikasleei biñeta batzuk aurkeztuko zaizkie eta haiek irudiak ikusiz, istorio desberdinak asmatu beharko dituzte elkarrizketak sortuz. Horrez gain, haiek ere komikiak sortzeko aukera izango dute.

- Antzerkiak: bat-bateko ahozkoa eta sormena garatzeko erabilgarriak dira. Zenbait egoera eskainiko zaizkie ikasleei eta behin egoerak irakurrita, hauek antzestu beharko dituzte.
- Bideo laburrak: komikien modura, idazmena eta sormena garatzeko erabilgarriak dira. Hauek, bideoak mutuak izango dira, beraz, ikasleek bideoetan agertzen denaren inguruan istorioak asmatu beharko dituzte. Komikien moduan, bideoak sortzeko aukera ere ematen da.
- Hitzak asmatzea: ahozkoa lantzeko erabilgarria den jolasa. Ikasleek zenbait hitz asmatu beharko dituzte debekatuta dauden hitzak erabili gabe, beraz, azkar pentsatzea funtsezkoa izango da.

Azken atala “Zelan aritu gara” da. Atal hau umeek haien burua ebaluatzeko tokia izango da, ez da ebaluazio teoriko bat izango, ikasi duten edo ez, eta zelan lan egin duten adierazteko lekua baizik. Esaterako, taldeetan ondo moldatu diren ala ez, ahozkotasunaren garrantzia ulertu duten...

- Erabilitako baliabideak.

Webgunea sortzeko hainbat baliabide erabiltzea beharrezkoa izan da. Alde batetik, Powtoon bideoak sortzeko erabili da (<https://www.powtoon.com/>) eta bideo gehigarria Youtube-ren bidez lortu da (<https://www.youtube.com/>); bestetik, Pixton komikiak sortzeko erabili da (<https://edu-es.pixton.com/solo/>). Era berean, komikien aurkezpena hobetzeko asmoz, Power Point eta PDF erabili dira. Azkenik, Pixabay ere erabili da (<https://pixabay.com/es/>) lizentzia gabeko argazkiak erabili ahal izateko, hau da, webgunean dauden argazkiak jarri ahal izateko.

3.3 Prozedura.

- Nola sortu den webgunea.

Ahozkotasuna lantzeko webgune bat sortzea erabakitzea ez da erabaki zaila izan. Web orrialde baten bidez baliabide ugari izan daitezke eskuragarri, hala nola, bideoak, jolasak... beraz, esan daiteke web orrialde bat nahiko osatua dela klasean ahozkotasuna eta gizarteko gaiak lantzeko.

Web orria sortzeko, hiru pausu desberdin eduki behar dira kontuan: web orria sortu baino lehen burutu beharrezkoa, webgunean informazioa eta baliabideak islatzea eta azkenik, teoria lantzeko jolasak sortzea eta web-aren diseinua osotasunean garatzea.

Lehenengo atalean, webgunean agertuko den informazioa, baliabideak, argazkiak... hautatu behar dira. Hau prozesu luzeena da, izan ere, webgunean eskainiko den informazioa sortu behar da, betiere, umeen ezagutza mailara egokituz. Kasu honetan, ahozkotasunaren inguruko sarrera, lanbide, kirol eta jostailuen inguruko hausnarketak eta elkarrizketak sortzeko ideiak azaltzen dira. Honekin batera, garrantzitsua da webgunearen antolaketa

zehazten joatea, bildutako informazioa webgunean modu ordenatuan islatzeko baita erabiliko diren baliabideak kokatzeko ere.

Lortutako informazioa bigarren atalean islatu ahal izateko, informazioa webgunean atalka ordenatu behar da eta baliabideak, (kasu honetan jolasak), sortu behar dira. Jolasak sortzeko, beharrezkoa da erabiliko den informazioa ezagutzea (kasu honetan, ahozkotasuna eta genero berdintasunaren barruan zer landu nahi den, hau da, aurretik burututako pausua kontuan izatea). Beraz, horren ostean, komikiak, bideoak, antzerkiak eta hitzen jolasa sor daitezke (aldez aurretik webgunearen ezaugarrietan deskribatu diren moduan).

Azkenik, hirugarren atalean, webgunearen diseinua sortzen da (web-aren atal bakoitzean zer egongo den, nola antolatzen den...). Diseinuarekin aurrera egiteko, kontuan izan behar da umeentzat bideratuta dagoela, beraz, nahiz eta irakasleek erabiltzeko aukera izan, ikasleei zuzenduta dago. Webgunea diseinatzeko Wix erabili dut (<https://www.wix.com/>) plantilla batean oinarrituz.

3.4 Lantzeko irizpideak.

Mintzagunea Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek erabiltzeko sortu da; webgunearen erabilgarritasuna umeentzat pentsatuta dago, sinplea da eta jarraitzeko erreza. Hala eta guztiz ere, irakasleek erabiltzeko aukera dago, ikasleen gidari izanda, webgunearen funtzionamendua ezagutzea ezinbestekoa da.

Funtzionamenduari dagokionez, lehen aipatu dudana moduan sinplea da. Alde batetik, landuko denaren inguruko teoria edo informazioa dago (ahozkotasuna, zeharkako gaiak eta elkarrizketak sortzeko ideiak) eta bestetik, teoria hori aplikatzeko jolasak daude. Beraz, lehenengo, eskaintzen diren bideoak eta podcast-ak ikusi eta entzun behar dira eta horren ostean, ikasleei hausnartzeko aukera ematen zaie; haien iritzia azaltzeko, ados dauden ala ez adierazteko, haien jarrera zelakoa den behatzeko... Hori egin ostean, jolasean has daitezke, irakasleen eskutik noski, taldeka, binaka edo banaka arituko diren zehaztuz. Amaitzeko, ebaluazioa dago, batez ere, webgunea ahozkotasuna eta genero berdintasuna lantzeko erabilgarria izan den ala ez jakiteko.

4. Ondorioak.

Proposamen berritzaile hau baliabide moduan sortu da euskarazko ahozkotasuna klasean lantzeko helburuarekin. Ahozko hizkuntzari duen garrantzia eman behar zaio, nahiz eta askotan ahaztu egiten den idatzizko hizkuntzari arreta gehiago ematen zaiolako. Biek dute garrantzia eta berdina landu beharko lirateke.

Ikasleentzat eskola gizarteko lekurik garrantzitsuenetarikoa da, han dihardute egunaren zati handiena eta pertsona moduan bertan garatzen dira gehien; garapen horien barruan, ahozko eta idatzizko hizkuntzak presente daude. Hori dela eta, matematika, idazketa, irakurmena eta beste hainbat irakasgai edo eduki irakastea garrantzitsua den bezala, komenigarria izango litzateke ahozko hizkuntzari duen garrantzia ematea; azkenean, eguneroko edozein egoeratan (informalak nahiz formalak) beti erabiliko duten zerbait da.

Egia da baliabide erakargarri gutxi izatea ahozkoa ez lantzeko aitzaki gisa erabiltzen dela, baina gaur egun horrek ez du balio. Bizi garen garaian, zorionez, haurrentzako material edo baliabide ugari ditugu eskura, interesa pizteko moduko klaseko edukiak lantzeko; hortaz, zerbait lantzeko interesa izanda, irtenbideak bilatzen dira.

Mintzaguneak ahozkotasuna modu entretenigarrian lantzeko aukera eskaintzen du, haurren interesak kontuan hartuta (kasu honetan jolasak, ahozkoa lantzeko prozesua eramangarriagoa bihurtzeko helburuarekin) eta gizarteko gai bat zeharka lantzeko aukera ere eskainiz, hots, genero berdintasuna. Ahozkoaz gain, idatzizko gaitasuna lantzeko baliabideak eskaintzen ditu ere, horrela, biei garrantzia berdina emanez.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, webgunea baliabide paregabea da ahozkotasuna zein idatzizko gaitasunak lantzerako orduan. Izan ere, webguneak umeentzat ezagunak dira, haien egunerokotasunean presente dituzten baliabideak direlako, hortaz, alde horretatik positiboa da haientzat, erreztasunez arituko baitira. Eta horretaz gain, web orri batek baliabide ugari biltzeko aukera ematen du; esaterako, bideoak, podcast-ak, linkak, jolasak eta abar sartuz.

5. Erreferentzia bibliografikoak.

- Banz, C. (2008). Convivencia escolar. *Valoras UC*. 2021-02-16an <https://www.centroderecursos.educarchile.cl/bitstream/handle/20.500.12246/55810/Clima%2005.pdf?sequence=1&isAllowed=y> -tik berreskuratua.
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Romero, A., & Iglesias, A. (2016). Desarrollo de la competencia prosódica en la lectura en voz alta: importancia de las pausas. *Ocnos: Revista de estudios sobre lectura*, 15(2), 110-118.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *236/2015ko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea, Oinarrizko Hezkuntza Curriculum*. 2021-03-29an https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf -tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). 2021-02-15an <https://www.euskadi.eus/heziberri/aurkezpena/web01-a3hbhezi/eu/>-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *Elkarbizitza positiboa*. 2021-02-16an hartua: https://www.euskadi.eus/web01-a3hbconv/eu/contenidos/informacion/inn_convivencia_conv_positiva/eu_def/index.shtml-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *II. Hezkuntza Plana*. 2021-02-16an https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/92020191e_II_hezikidetza_plana_berdintasuna_eta_tratu_onaren_bidean_2019_2023.pdf-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *2011ko ekainaren 20ko Aginduak arautu egiten ditu, hezkuntzan, lanean jazarpen sexistak edota moralak gertatzen den kasuetan prebentzio neurriak eta jarduteko prozedura*. 2021-02-16an https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/600016e_Pub_EJ_orden_acoso_e.pdf-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *Emakumeen genitalen mutilazioari aurrea hartzea, hezkuntza-esparruan*. 2021-02-16an https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planak/eu_def/adjuntos/folletoaEGM.pdf-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *Hezkuntzako Sailburuordearen jarraibideak*. 2021-02-15an https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_iniciativa_global_formacion/eu_def/adjuntos/iniciativa_global_formacion_jarraibideak_e.pdf-tik berreskuratua.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako esku-liburua*. 2021-02-16an https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/9202016004e_pub_ej_genero_indarkeria_prebentzioa_e.pdf-tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021). *Protokoloa. Sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko*. 2021-02-16an https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/9202011002e_pub_emakunde_acoso_sexual_trabajo_e.pdf-tik berreskuratua.
- Gallardo-López, J. A., López-Noguero, F., & Gallardo-Vázquez, P. (2020). Pensamiento y convivencia entre géneros: coeducación para prevenir la violencia. *Multidisciplinary Journal of Gender Studies*, 9(3), 263-287.
- García A, E. (2017). Ahozkoatasunaren balio pragmatikoa ipuin kontaketan. *Tantak*, 37(29.2), 119-144.
- Grande, M. J. C. (2010). Convivencia escolar. Un estudio sobre buenas prácticas. *Revista de paz y conflictos*, (3), 154-170.
- Hymes, D. (1972). Competencia comunicativa. *Editorial Pride and Holmes*, 42.
- Ibarluzea Santisteban, M. Ahozkoatasuna eta hezkuntza: Ahozkoatasuna lantzeko materialak garatzea. *Ahoa bete hots*, 51.
- Leiva, A. C. (2010). Importancia de la coeducación en los centros educativos. *Pedagogía magna*, (8), 39-45.
- Martínez, J. R. (2002). La expresión oral. *Contextos educativos: Revista de educación*, (5), 57-72.